

# *Aurkezpena*



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

# 1. Batxilergoan proposatutako hezkuntza materiala

Karpeta honetan, batxilergoko ikasleek gatazkei eta haien konponbideari buruz lan egiteko proposamenak aukezten dira, curriculumeko hainbat arlotatik abiatuta. Prozedura berritzaileak oinarri hartuta jarrerak eta balioak lantzearen alde egiten duen materiala da; helburua da prozedura horien bidez, gatazkak sortzen direnean, jarduera solidario eta arduratsuetara bideratzea eta ikasteko era esanguratsuak ahalbidetzea.

Proposamen hau herritartasunaren gaia lantzen duen hezkuntza-proiektu zabalago baten zati da. Proiektuan hiru gai lantzen dira hiru ikasturtetan: eskubideak eta erantzukizunak; parte-hartze soziala; eta gatazkak maneiatu eta konpontzeko modu baketsuak. Ondoren, proiektuaren hirugarren urteari dagokion hezkuntza-materialaren zati bat aurkezten da; material honekin gatazkei aurre egiteko moduari buruz lan egin daiteke, lau ideia nagusi oinarri hartuta:

- Gure bizimoduan eta elkarbizitzan ezinbestean sortzen dira gatazkak. Ez dago bizitza sozialik gatazkarik gabe.
- Indarkeria ez da beti gatazkaren ondorioa, eta gatazka guztiek ez dute beti indarkeria eragiten.
- Herritar helduek gatazka elkarrizketarantz bideratzen dute.
- Gatazka aukera bat izan daiteke gatazkako alderdiak hazteko, betiere, bide bakezaleak kudeatzen bada-kigu.

Curriculum-arlo bakoitzerako jarduera batzuk proposatzen dira, gatazka era baketsuan aztertzeke eta ebazteke herritar gisa dagozkigun ardurak lantzeko. Ildo horretatik, **biologian**, hausnarketa- eta azterketa-jarduerak proposatzen dira, ohiko gatazkei aurre egiteko, gizakiok erabiltzen ditugun ahalbideei buruz irakurketa ekologikoa egitearren; **ekonomian**, kontsumo arduratsua eta horrek hainbat gatazka aurreikusi eta konpontzeko duen garrantzia aztertzen da, datuen eta portzentajen tratamendua dela medio; **filosofian**, hainbat kasu praktiko jorratuz, helburua gatazkak negoziatu, tratatu eta konpontzeko estrategiak barneratzea da, indarkeria-eza aktiboa abiapuntu izanik; **historian**, indarkeria gabeko benetako esperientziak oinarri hartuta, ez-indarkeriazko estrategiak bilatzea proposatzen da eraso armatu bati aurre egiteko; **hizkuntza eta literaturan**, informazio-transmisioan komunikabideek darabilten objektibotasuna zalantzan jartzen da; **matematikan**, bi arazo handiri buruzko zifrak aztertzen dira: alde batetik, gizakiok sortzen dugun izugarritzko hondakin-kantitatea handia, eta bestetik, ikerkuntza militarrean inbertitzen den diru-kantitate gero eta handiagoa; **etikan**, posterrak, rol-joko bat eta film bat erabiliko ditugu gatazka baten inguruko jarrerak, posizioak, interesak, premiak, sentimenduak... identifikatzeko, eta hura, bake-bidez konpontzen saiatzeko. DBHko bigarren ziklorako materialean, hezkuntza-garai honetarako interesgarriak izan daitezkeen proposamenak sartzen dira **erlijio** eta



**atzerriko hizkuntza** arloetarako.

Material honekin lortu nahi diren **helburu orokorrak** hauek dira:

- Pentsatzeko estilo pertsonala garatzea, baita estilo hori ahoz zein idatziz garbi eta koherentziaz adierazteko gaitasuna ere.
- Adimena lantzeko oinarrizko prozedurak erabiltzea: informazioa bilatzea, zuzenean behatzea, kontrastatzea, aztertzea, laburtzea eta kritikoki aztertzea, arazoak formulatzeko eta konpontzeko beharrezko adimen-zorroztasunaz.
- Gertaeren eragileei, bilakaerari eta ondorioei buruzko hipotesiak formulatzea.
- Gizartean gatazkak nahitaez egongo direla onartzea eta horiek era baketsuan tratatu behar direla.
- Aniztasuna aberastasun-iturritzat hartzea eta ez gatazka-sustatzaile gisa.
- Mundu osoan elkarbizitza sortzeko parte-hartze aktiboak duen garrantziaz ohartzea. Elkarbizitza horren oinarri dira giza eskubideen errespetua, eskubide indibidualak eta kolektiboak, baita natura eta bakea zaintzea ere.
- Jarrera irekia eta abegitsua izatea besteen arrazoi, ikuspegi filosofiko eta sinesmenekiko, gure iritziak aberasteko eta kontrastatzen ikasteko.
- Komunikazioaren garrantziaz jabetzea, elkarrizketa- eta eztabaida-jarrerak arazoak eta gatazkak konpontzeko biderik egokienak direla kontsideratuz.
- Gatazkek ikasteko ematen duten aukera ulertzea eta aurkitzea.
- Gizartean elkarrekin bakean bizitzeko gaitasunak lantzea.

## 2. Zikloko irakasle eta gurasoentzat lan-proposamena

Ziklo honetan gai hori lantzeko, interesgarria iruditzen zaigu irakasleek eta gurasoek gaiari buruz hausnartzeko materiala eta denbora edukitzea, baita helburu nagusiak ezartzeko eta ikastetxeko errealitatera egokitzeke ere.

Horretarako, bi dokumentu aurkezten dira orientazio gisa erabiltzeko. Lehen dokumentua *'Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara'* izenekoa da, eta hiru urteko iraupena izango duen proiektuaren aurkezpena egiten du. Guk proposatzen dugun herritartasunaren kontzeptua definitzen du, eta hezkuntza-estrategia



batzuk zehazten dira.

Bigarrenean, *'Gatazkak modu baketsuan konpontzea'* izenekoan, dokumentu honetan aurkezten diren hezkuntza-materialen proposamenaren oinarrian dagoen filosofia aurkezten da, eta posterraren, bideoaren, ikas-tetxearen proposamenaren eta jolasaren bidez osatzen dira, baita ALBOANen aholkularitza eta trebakuntzaren bidez ere.

Dokumentu horiek irakasleek eta gurasoek trebakuntza-saio batzuk egiteko oinarri gisa erabil daitezke. Saio horietan, ikuspuntuak partekatu, lanaren lehentasunak ezarri –testuinguru espezifikoaren arabera– eta proposamenak osatuko dituzte.

## 1. saioa:

Aurrez *'Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara'* dokumentua banatuko da.

1. Dinamika taldeka: *scrabble* jokoaren herritartasun hitzari buruz.
  - a. Agertzen diren hitzak bateratzea.
  - b. Lehentasunaren arabera ordenatzea.
2. Herritartasunaren dokumentuari buruzko galdera hauek egitea.
  - Dokumentua azaltzea edo haren gaineko iruzkinak egitea.
  - Zer iradokitzen dizu herritartasunaren gaiak?
  - Gaiaren diagnostikoa:
    - Ikasgela, ikastetxea, irakasleak, gizartea.
  - Zer zerikusi du zure heziketa-lanarekin?
  - Gai horri buruz ezagutzen dituzun proposamenak eta ekimenak.
  - Zure heziketa-lanean beharrezkoak edo iradokitzaileak diren proposamen zehatzak bi alderdi hauei buruz:
    - Gaiak
    - Metodologia
3. Talde-lana eta bateratze-lana.

## 2. saioa:

1. Aurreko saioan azaldutakoa kontuan hartuz, herritartasunari buruzko diagnostikoa egingo da taldeka, ikastetxean eta ikasgelan oinarrituz.
2. Bateratze-lana eta adostea.
3. Ikastaro honetako gaiaren aurkezpena: gatazkak konpontzea.

“**Gatazkak modu baketsuan konpontzea**” dokumentua eta galderak edo iradokizunak banatuko dira.

### Dokumentua lantzeko galderak

#### Gure eskolei dagokienez...

- Beste elementuren bat sartuko zenuke egoeraren diagnostikoan? Beste ezaugarririk ikusten duzu zure ingurunean? Diagnostiko horrek zenbaterainoko balio duela uste duzu zure ikasleen artean?
- Zer egoeratan sortzen dira gatazkak ikasgelan? Nola lor daitezke aurretiko beharrezko baldintzak gatazkak konpontzeko? Nola susta daitezke jarrera edo komunikazio-gaitasun jakin batzuk ikasleen artean?
- Ikasleekin hitz egiten duzunean, gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta elkarriketarantz bideratzeko, zer argumentu erabiltzen dituzu? Zer tresna edo estrategia erabiltzen dituzu? Nola ikusten duzu zure burua familian, ikastetxean, herrian, munduan... gatazkak konpontzeari dagokio-

nez?

#### Gure buruari begira...

Gatazkak konpontzeko jarrera baketsuak garatu behar direla jabetzean, garrantzi handia hartzen dute erabiltzen ditugun mekanismoek, estrategiek eta bide baketsuek beste pertsona batzuekiko sortzen diren gatazkak konpontzeko.

- Nire ustez, zer erantzukizun ditut heziketa-lanean gatazkak konpontzeari dagokionez? Zein daude nire ‘laneko’ erantzukizunetatik harantzago?
- Heziketa-komunitate bateko partaide gisa:
  - Zein dira, nire ustez, sustatu behar ditugun balioak eta jarrerak?
  - Nola bultza daitezke bake-prozesuak?
  - Nork du horren erantzukizuna?

### 3. saioa:

1. Taldeka, galderak bateratu eta ikastetxearen edo hezkuntza-zikloaren diagnostikoa egingo da.
2. Bateratze-lana.
3. Ikastetxeko helburu nagusiak zehaztea gaia tratatu eta erabili beharreko materiala aurkezteko.
4. Gatazkak modu baketsuan konpontzeko sekuentzialki, progresiboki eta koherentziaz lan egiteko, ikastetxeko posterrak erabiliz, ALBOANek poster horiek kokatzeko ordena logiko hau proposatzen du:
  - Gatazkekin bizi gara.
  - Behar eta interes desberdinak daudelako sortzen dira gatazkak.
  - Biolentzia ez da hartu beharreko bidea.
  - Gatazka aukera bat da honetarako...
  - Gatazkak konpontzen ikasi behar da.
  - Gatazkak ikusi eta konpontzeko nahia eduki behar da.
  - Beharrezko jarrera batzuk hauek dira:
    - entzutea,
    - enpatia,
    - uko egitea,
    - bestea onartzea,
    - asertibitatea,
    - adostea,
    - harreman berriak eraikitzea,
  - Gatazkak hainbat modutan konpon ditzakegu: autogestioa, negoziazioa, arbitrajea eta bitartekotza.
  - Ondo konpondutako gatazkak aukera berriak ematen dizkigu.
  - Gatazkak konpontzeko gure jarraibideak.

### 3. Informazio gehiago lortzeko

Ondoren, web orrien zerrenda bat agertzen da informazioa zabaltzen laguntzeko eta gaiarekin lotutako beste baliabide interesgarri batzuetara iristen laguntzeko.

#### Dokumentazioa

**<http://www.aufop.org/publica/reifp/>**

IRAKASLEEN TREBAKUNTZARAKO UNIBERTSITATEEN ARTEKO ALDIZKARI ELEKTRONIKOA.

**<http://lacolina.lasalle.org.ve/attach/153/default/APORTESDELAMEDIACI%C3%93N.rtf>**

GATAZKAK KONPONTZEARI ETA ESKOLA-BITARTEKOTZARI BURUZKO ARTIKULUA.

**<http://www.ilo.org/public/spanish/dialogue/themes/>**

GATAZKAK SAIHESTEARI ETA KONPONTZEARI BURUZKO DOKUMENTUAK.

**<http://www.rds.org.co/2002/centro-mundial/>**

GATAZKAK IKERTZEKO ETA KONPONTZEKO ZENTROA.

**<http://www.unesco.cl/pdf/actyeven/ppe/boletin/artesp/33-9.pdf>**

KULTUR ANITZEKO HEZKUNTZARI ETA GATAZKEN AZTERKETEI BURUZKO ARTIKULUA.

**<http://www.colegiomediacion.com/>**

BITARTEKOTZA PROFESIONALAREN ELKARGOA. GATAZKAK KONPONTZEKO ALTERNATIBEI BURUZKO ARTIKULUAK ETA DOKUMENTUAK.

**<http://www.crea.uct.cl/revista.php>**

GATAZKAK KONPONTZEKO SISTEMA ALTERNATIBOEN ETA HAIEN EMAITZEN HEDAPENAREN IKERKETARI BURUZKO ALDIZKARIA.

**<http://www.redoc.org/>**

BAKERAKO PEDAGOGIARI BURUZKO DOKUMENTUEN WEB ORRIA.

## Estekak

[http://europa.eu.int/comm/justice\\_home/ejn/adr/adr\\_ec\\_es.htm](http://europa.eu.int/comm/justice_home/ejn/adr/adr_ec_es.htm)

GATAZKAK KONPONTZEKO ALTERNATIBEN MODALITATEAK.

[http://centros5.pntic.mec.es/cpr.de.aviles/asesorias/diversidad/Accion\\_Tutorial\\_Mediacion.htm](http://centros5.pntic.mec.es/cpr.de.aviles/asesorias/diversidad/Accion_Tutorial_Mediacion.htm)

AVILESEKO IRAKASLE ETA BALIABIDEEN ZENTROA, MATERIAL ETA ESPERIENTZIETARAKO ESTEKEKIN.

<http://intercentros.cult.gva.es/cefire/46401840/diversificacio/>

ESKOLAKO GATAZKAK KUDEATZEKO BALIABIDEETARAKO ESTEKAK. GENERALITAT VALENCIANA.

## Hezkuntza-esperientziak eta -baliabideak

<http://www.culturadepaz.info/home.php>

BALIABIDE INFORMATIBOAK HEZKUNTZARAKO ETA BAKEAREN ALDEKO ETA GATAZKAK KONPONTZEKO EKINTZETARAKO.

<http://www.fundacioperlapau.org/castella/>

BAKE-HEZKUNTZARAKO EKINTZAK, ARGITALPENAK ETA KANPAINAK.

<http://www.aprenderaconvivir.org/programa.html>

BIZIKIDETZA OSASUNSUAGOA, ERRESPETAGARRIAGO, SOLIDARIOAGOA ETA DEMOKRATIKOAGOA ERAIKITZEKO BALIABIDEAK ESKAINTZEN DITUEN UDALEKO HEZKUNTZA-PROGRAMA.

<http://www.mediacioneducativa.com.ar/index.htm>

HEZKUNTZA-BITARTEKOTZAREN JAKINTZA-ALORREN ARTEKO TALDEA. HEZKUNTZARI BURUZKO WEB-A BITARTEKOTZARI BURUZKO ESTEKEKIN, HEZKUNTZAKO ESPERIENTZIEKIN ETA BIBLIOGRAFIAREKIN.

[http://www.concejoeducativo.org/alternat/conf\\_res.htm](http://www.concejoeducativo.org/alternat/conf_res.htm)

IKASTETXEETAKO GATAZKEI ETA BIZIKIDETZARI BURUZKO HAUSNARKETAK ETA ONDORIOAK.



# *Biologia*



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

# Helburuak

- Espezieen biziraupenerako eta gizakion elkarbizitzarako lehiaren balioa zalantzan jartzea.
- Gatazkak konpontzeko gizakion jokabideei ekologiaren ikuspegitik begiratzea.
- Natur baliabideen berriztatzeko gaitasunaz jabetzea.
- Ingurumen-arazoak aztertzea, ondorioak atereaz eta konponbideak proposatuz.
- Ingurumena zaintzeko jarrerak bultzatzea, hura hobetzeko neurri eta proposamen egokienak aukeratuz.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: Lehia edo lankidetz<sup>1</sup>

**Deskribapena:** Txoko ekologikoetako espezieen biziraupenari buruzko testu labur bat irakurri ondoren, hainbat hausnarketa-, azterketa- eta elkarrizketa-jarduera proposatzen dira, ohiko gatazkei aurre egiteko gizakion ekimenak ikuspegi ekologikotik begiratzeko eta lehiaren balioa aztertzeko.

**Materiala:** 1.1. fitxa.      **Dinamika:** Taldekakoa.      **Denbora:** 50 minutuko saio bat.

### 2 Jarduera: Gizakia eta ingurumena

**Deskribapena:** Giza jarduerak natur ingurunean egiten duen etengabeko hondamena gaitzat hartuta, ikasleei, taldeka, hurbilekoa zaien ingurumen-arazo bat hautatzeko eskatzen zaie, eta hura konpontzeko edo tratatzeko proposamen arrazoituak egiteko.

**Materiala:** 2.1. fitxa.      **Dinamika:** Taldekakoa.      **Denbora:** 50 minutuko saio bat.

<sup>1</sup> Honako honetatik egokitua: Fenosa, X. eta Agustí, N. (1994). *Ecología*. El Roure argit.: Bartzelona.



# 1.1. Fitxa

## TXOKO EKOLOGIKOAK ETA LEHIA

Hona txoko ekologikoaren definizioa: ekosistema jakin baten barruan espezie edo espezie-talde batek hartzen duen lekua. Txokoaren eginkizunak edo sisteman daukan zereginak zehazten du aipatutako lekua.

Bi espezie edo gehiago bizi badira txoko berean, elkarren artean banatu behar dituzte eskura dauzkaten baliabideak. Horrenbestez, espezieen arteko lehia sortzen da baliabideen erabilera dela eta. Lehia horretan, espezie eraginkorrenaren joera da beste guztiak suntsitzea eta txoko ekologiko osoa beretzat hartzea.

Lehia balitz kontuan hartu beharreko faktore bakarra eta ekosistemak eredu sinpleak balira, honako joera hau nabarmenduko litzateke: gero eta espezie gutxiago biziko lirateke txoko bakoitzean. Alabaina, lankidetzeta-sistema asko daude espezie bereko kideen artean. Horri esker, espeziearen eraginkortasuna hobetu egiten da,

baita espezieak bizirik irauteko aukerak gehitzen ere.

Halaber, baterako eboluzioa ere gertatzen da. Hona hemen adibide batzuk:

- **Mutualismoa:** Bi espeziek baliabide bera erabiltzea, edo elkarri laguntzea.
- **Sinbiosia:** Harreman estua bi espezieen artean. Biek ateratzen dute onura harreman horretatik.
- **Komentsalismoa:** Sinbiosiaren antzekoa da, baina ez dira bi espezieak aprobetxatzen lankidetzaz, bakarra baizik.
- **Parasitismoa:** Espezie batentzat onuragarria da lankidetzeta, baina kaltegarria bestearentzat. Harraparitza-era sofistikatuak da: harrapakina hil beharrean, haren bizkarretik bizi da harraparia.

### Taldean eztabaidatzeko

1. Bilatu mutualismo-, sinbiosi-, parasitismo- eta komentsalismo-adibideak.
2. Ziurtatua dute biziraupena hobeto lehiatzen diren espezieek? Lehia da espezie baten aukerak gehitzen dituen faktore bakarra?
3. Saiatu ekologiaren ikuspegitik aztertzen giza espeziearen eguneroko bizimoduko hainbat gatazka: autoilara edo zirkulazio-arazoak, immigrazioa... Nola moldatzen gara gizon-emakumeok egoera horietan?
4. Uste duzue lehia dela gizakien elkarbizitzarako aukera hobetiena? Hitz egin "irabaz dezala hobetiena" esaldiaz.
5. Hausnarketa hauetatik, zer aplikatu daiteke gure eguneroko bizimoduan?



## 2.1. Fitxa

Giza jarduerak etengabe hondatu eta hondatzen du ingurumena. Batetik, natur baliabide ez-herriztagarri asko eta azkar kontsumitzen da, sistema ekonomikoari eta produktiboari eusteko. Baliabideak agortzea ekarriko du jakebide horrek. Bestetik, substantzia poluitzaile ugari sortzen ditu giza jarduerak.

Hona baliabideen suntsiketa eragiten duten zenbait faktore:  
gaur egungo nekazaritza, garraio-sistemak eta generak.

Egin hausnarketa, taldeka, hainbat ingurumen-gairi buruz, eta hautatu horietatik bereziki arduratzen zaituzten bat. Prestatu konponbide errealistak; zehaztu konponbidea gauzatzeko behar den denbora eta prozesuan parte-hartzen duten faktoreak.

	Epe laburrera	Epe ertainera	Epe luzera
Pertsona			
Talde antolatuak- Elkartek			
Estatuak			
Mundua			

# *Ekonomia*



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

# Helburuak

- Gaur egungo kontsumo-eredua ezagutzea eta horretaz hausnarketa egitea.
- Datuak eta portzentajeak egokiro maneiatzea eta horien irudikapen grafikoak egitea.
- Kontsumo arduratsuaren garrantziaz jabetzea hainbat eratako gatazkaren prebentzioan.
- Hainbat enpresak bezeroekiko gatazken tratamenduan erabiltzen dituzten tresnak ezagutzea eta aztertzea.

# Jarduerak

## 1 Jarduera: Premia eta kontsumoa

**Deskribapena:** Gaur egungo kontsumo-premiei eta -ereduari buruzko testu labur bat oinarri hartuta, kontsumo arranditsuaz hausnarketa egitea proposatzen da. Horretarako, publizitatea aztertu eta herritarren urteko batez besteko gastuaz datuak bilatu eta konparatzeko eskatzen da (1.1. fitxa). Azkenik, planteatu pobreziaren eta kontsumo-ohituren arteko gatazka. Ikasleei, gatazka horretaz, hausnarketa pertsonala eta orokorra egiteko proposatzen da.

**Materiala:** 1.1. fitxa eta Internet.

**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko bi saio.

**Iradokizunak:** Urteko batez besteko gastuaz datuak bilatzeko, begiratu Espainiako Estatistika Institutu Nazionalaren web orria: <http://www.ine.es/escif/escifes/cond99.pdf>

Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP) egindako Giza Pobreziaren Indizea (GPI) ere erabil dezakete ikasleek, garapen handiko herrialdeen eta garapen ertaineko edo txikikoen arteko konparaketa egiteko ([www.pnud.org/idh/pobreza.asp](http://www.pnud.org/idh/pobreza.asp)).



## 2 Jarduera: Kontsumo arduratsua

**Deskribapena:** Aurrekoaren jarduera osagarri gisara, ikasleei orri hau begiratzeko [www.consumoresponsible.com](http://www.consumoresponsible.com) esan dakieke. Ondoren, publizitate-kanpaina bat prestatu behar dute, taldeka, ikastetxerako, honako gai honetaz: arduraz kontsumitzearen garrantzia ingurumen-arazoak, pertsonalak, kulturalak... konpontzeko edo prebenitzeko.

**Materiala:** Internet.

**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko bi saio.

## 3 Jarduera: Bezeroarentzako arreta

**Deskribapena:** Bistakoa da guztiok garela kontsumitzaile. Batzuetan, ordea, kontraesanak edo kezkek sortzen zaizkigu kontsumoa dela eta. Zer bitarteko eskaintzen zaizkie, bada, kontsumitzaileei? Ikasleei Kontsumitzailearen Udal Informazio Bulegora joatea proposatzen zaie, edo zenbait enpresarekin harremanetan jartzeko –bezeroarentzako informazio-telefonoaren bitartez–, jakiteko zer bitarteko erabiltzen diren auziren bat sortuz gero kontsumoa dela eta (ikus 3.1. fitxa). Enpresen “ranking” bat ere egin daiteke, irizpide hauen arabera: kontsumo-auziak tratatzeko bezeroari zer bide eskaintzen dioten, eta zer zabalera eta kalitate duen bide horrek.

**Materiala:** 3.1. fitxa.

**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** Ikerketa-lana egiteko eta enpresekin harremanetan jartzeko behar dena.

**Iradokizuna:** Gehiegikeriarik gertatuz gero, kontsumitzaileek zer eskubide eta baliabide dituzten jakinaraztea ikasleek ikastetxe osoari, auzo edo herriari edo gizarte osoari (Interneten bidez).



# 1.1. Fitxa

## *Hasieran, oinarrizko premiak asetzea zuen helburu bakarra jarduera ekonomikoak.*

### Zeri deritzegu premiak?

- Premia: zerbaiten gabezia, eta hori gainditzeko asmoa.
- Badira hainbat eratako premiak:
  - Bizi-premiak, edo oinarrizkoak: Elikadura, bizilekua, osasuna, hezkuntza...
  - Materialak: Autoa, zinema, antzerkia...
  - Sozialak: Maitasuna, talderen bateko kide izatea...
  - Estimatu-premiak: Prestigioa, estatusa...
- Gizartearen bilakaerak, ordea, hainbat aldaketa eragin ditu premiei dagokienez. Gaur egungo gure gizartean, oinarrizko premiak ez ezik ezinbestekoak ez diren beste batzuk ere asetzen ditugu: horra kontsumo arranditsua.
- Herritar bakoitzaren maila ekonomiko eta sozialaren arabera asetzen dira egun premiak (edo norberak ustez daukan mailaren arabera). Azken 50 urteotan, antzina baino askoz diru gehiago gastatzen dugu garraioan, komunikazioetan, etxebizitzan, etxea berotzen edo argizatzen...
- Kontsumo-ereduak aldatu egin dira, ase nahi ditugun premien arabera. Zein dira, ordea, benetako premiak eta zein ez-beharrezkoak? Ezinbestekoa da batzuk eta besteak bereiztea baliabideak ez xahutzeko.



## Taldean hausnartzeko

- 1 Aipatu kontsumo normaleko eta kontsumo arranditsuko hainbat adibide.
- 2 Indiako familia baterako balio dute adibide horiek? Zergatik?
- 3 Zer dela-eta uste duzue sortzen dela kontsumo arranditsua?
- 4 Zuen ustez, zer faktorek eragiten dute gure premiak halako eta halako izatea? Zerk bultzatzen gaitu gauza batzuk edo besteak kontsumitzera?
- 5 Hurrengo egunotan, hautatu telebistako edo prentsako publizitate-iragarkiak, gezurrezko premiak edo kontsumo arranditsua bultzatzen dutenak betiere.
- 6 Bilatu gaur egungo datuak (portzentajeak) urteko batez besteko kontsumoaz. Irudikatu grafikoan bidez. Bilatu duela 50 urteko datuak, egin grafikoak eta konparatu orduko eta oraingo emaitzak. Zer adierazten digute datuek? Zer premia asetzen saiatzen gara gaur egun?  
*Kontsumoa arranditsua eta pobrezia elkarri kontrajarrita daude. Pobrezia: gizon-emakumeen gabezia- edo premia-egoera, non oinarrizko premiak asetzeko bitartekorik ez daukaten. Munduko herrialde guztietan dago pobrezia, maila ezberdinetan.*
- 7 Zer lotura daukate elkarrekin pobrezia eta kontsumoak? Badute zerikusirik gure kontsumo-ereduek pobrezia areagotzearekin?

## 3.1. Fitxa

### Zer tresna erabiltzen dira gatazkak maneiatzeko?

- **Gatazkaren autokudeaketa:** Kasu honetan, aldeek eurek kudeatzen dute gatazka. Alde bakoitzak bere jarrera, beharrak eta interesak adierazten ditu, eta elkarrizketa eta akordioaren bidez pertsona guztientzako aukera egokia lortzen da. Konponbide-mota honen adibideak gure eguneroko bizitzan ditugu: familian, lagunekin, etab.
- **Arbitrajea:** Arbitraje-prozeduraren bidez desadostasun bat arbitro baten edo hainbat arbitroz osatutako epaimahai baten esku jartzen da –aldeak ados direla betiere–, eta horiei dagokie erabakia hartzea. Nahitaez bete behar dute erabakia alde guztiek. Ezagunak zaizkigu zenbait arbitraje-adibide: kiroletan, kontsumitzaileen elkartetan, etab.
- **Bitartekotza:** Bitartekotza-prozedurak –adiskidetzea ere deitzen zaio– honela funtzionatzen du: eztabaida batean, aldeek eskatuta, bitarteko neutral batek –bitartekaria– guztientzako egokia den irtenbidea bilatzen laguntzen du. Bitartekariak ez du ahalmenik aldeak erabaki bat hartzera behartzeko. Bitartekaritza borondatezkoa da, hau da, aldeetako batek, hala erabakitzen badu, noiznahi utz dezake prozesua adostutako irtenbidea sinatu baino lehen. Prozesu hau banantze-kasuetan, gatazka kulturetan eta abarretan erabiltzen da.
- **Negoiazioa:** Bi alderen arteko zuzeneko prozesua da negoziazioa, hirugarrenen laguntzarik gabe. Ez da ezinbestekoa aldez aurretik inongo auzirik egotea aldeen artean. Gatazkak konpontzeko borondatezko mekanismoa da. Badira gizartearen zenbait negoziazio-adibide: sindikatuen eta patronalaren artekoa, edo nazioarteko gatazketakoa, zeinetan negoziazio-mahai espezifikoak proposatzen diren.

# Filosofia



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

## Helburuak

- Benetako zenbait adibide erabiliz, indarkeria-eza aktiboa oinarri harturik, gatazkak negoziatzeko, tratatzeko eta gainditzeko estrategiak ikastea eta menperatzea.
- Egoera bakoitzeko testuingurua eta elementu bereziak kontuan hartzea.
- Hausnarketa egitea gaur egungo egoerei buruz, baita gatazkak gainditzeko proposamenei buruz ere.
- Ulertzea eta onestea gizakien arteko ezberdintasun ideologiko eta politikoak, ikuspegi, interes eta premia desberdinek eraginak.
- Era guztietako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioren aurrean jarrera kritikoa izatea, eta klase-diferentziak eta sozialak aintzat hartzea.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: Indarkeriarik eza gerraren aurrean<sup>1</sup>

**Deskribapena:** Ikasgela bost taldetan banatu eta bakoitzari hainbat gatazka (etnikoak, lurraldeagatikoak..., 1.1. fitxakoen antzekoak) aurkeztuko zaizkie. Gatazkak aurkeztu ondoren, talde bakoitzak, arazoari, harekin lotura duten alderdi guztiak eta denek bete beharreko baldintza orokorrak kontuan hartuz ekiteko eskatuko zaie: adibidez, indarkeriarik gabeko bitartekoak erabiltzea, edo hainbat fasetan banatzea gatazkaren tratamendua. Hori guztia kontuan izanik, oinarriko helburuak identifikatzeko eta lor daitezkeen gutxieneko helburuak finkatzeko eskatuko zaie ikasleei. Ikasle guztiak elkarturik, konponbide guztiak konparatu, eta zer balio eta jarrera proposatu diren kasu bakoitzerako zehaztuko dira. Ondoren, gaur egungo eta iraganeko egoera errealak aztertuko dira.

**Materiala:** 1.1. fitxa.  
**Dinamika:** Taldekakoa.  
**Denbora:** 50 minutuko bi saio.

### 2 Jarduera: Gutuna

**Deskribapena:** Ikasleei Venezuelako Fe y Alegría (Fedea eta Alaitasuna) erakundeko Kontseilu Nagusiak 2003ko urtarrilean idatzitako gutuna banatuko zaie. Idazki hori abiapuntu harturik, ikasleek, Venezuelako gatazka-giroa ikertu behar dute, baita Fe y Alegría gatazkak maneiatu eta tratatzeko egiten dituen ekarpenak ere (balioak, jarrerak eta tresnak).

**Materiala:** 2.1. fitxa eta Internet.  
**Dinamika:** Taldekakoa.  
**Denbora:** 50 minutuko bi saio.

**Iradokizuna:** Lanaren osagarri gisa, "Ahimsa" bideoa erabil daiteke, gai horri buruzko hainbat hausnarketa baititu.

<sup>1</sup> Honako honetatik egokitua: Pedro Sáez (1997). *Las Claves de los Conflictos. Guías didácticas de educación para el desarrollo*. CIP: Madrid.

## 1.1. Fitxa

### GATAZKA ETNIKOAK: HAINBAT EREDU

- 1 Zuen herrialdea inbaditu eta indarrez okupatu du aldameneko estatuko armadak. Alderdi ultranazionalista eta oldarkor bat dago agintean estatu horretan, herritar gehienek babesarekin. Inbasiorako aitzakia: zuen herrialdean badela haien etniako zenbait jende "jatorrizko" herriari lotu nahi duena. Aspaldi heldu zen zuen herrira aldameneko herrialdeko "jende hori", eta bertakoekin nahastuta bizi dira. Mugako herrialdeetan, ordea, beren kasako komunitate handiak osatzen dituzte herri nagusietan. Aipatzekoa da mineral ugari dagoela mugalderako inguruan.
- 2 Bi etnia nagusi daude zuek bizi zareten herrialdean: etnia bateko herritarrek herrialde osoan daude banatuta, herri txikietan eta landa-eremuetan; beste etniakoak, berriz, hiri nagusietan bizi dira, eta industria eta merkataritza dituzte ogibide nagusi. Orain artean ez da elkarbizitza-arazorik izan bi etnien artean. Krisi ekonomikoak, ordea, hirietara emigratzera behartu ditu nekazari asko, eta lantegi zein denda askoren itxiera ekarri du. Enfrentamenduak sortu dira, bada, bi etnien artean, bai lanpostuengatik bai hirietako auzo pobreetako bizi-kondizioengatik. Indarkeria-giro gero eta handiago horretaz baliatzen dira alderdi politikoak hauteskunde kanpainan jarraitzaileak mobilizatzeko.
- 3 Zuen herrialdean aspalditik nahastu izan dira elkarrekin taldeak eta etniak. Denboraren poderioz, dezenteko integrazio kulturala eta homogeneousotasun soziala lortu dira. Atzerritar ugari etortzen da zuen herrialdera. Ezberdinak dira etorkinak kultura eta etnia aldetik, baina goi-mailako prestakuntza eta gaitasun profesionala dute. Arrazoi ekonomiko eta politikoenegatik emigratu dute gehienek. Desoreka demografikoa eragin du horrek, handia baita emigratutako herritarren portzentajea. Bestalde, zenbait talde xenofobok indarrez kanporatu nahi dituzte etorkin heldu berriak.
- 4 Bi etnia aurrez aurre, mugakide duten herrialdeengatik lehian: etnietako batek dio lurralde horiek bereak dituela betidanik; besteak, berriz, nahitaezkoa duela lurralde hori ekonomiak bizirik irauteko. Muga politiko batek zeharkatzen eta zatitzen du herrialdea, baina etnia biek aldarrikatzen dute beretzat eskualde osoaren jabetza. Sarritan izaten dituzte gatazka armatuak muga zaintzen duten alde bietako patruilek. Bi herrialdeetako alderdi politiko gehienek programek diote "beste aldeko" eskualdea bereganatu beharra dagoela (negoziazio bidez nahiz indarrez). Komunikabideek, berriz, giroa berotzen dihardute.
- 5 Hizkuntza eta -kultur nortasun sendoko herri bat hainbat estatutan banatu zuen europar kolonizazioak. Estatu horietako bakoitzean, berriz, beste etnia bat da nagusi. Orain, herri sakanatu horrek bere estatu propioa nahi du. Hainbat estatutan banatutako herrialdeak batu beharra dauka horretarako. Oso ezberdina da herri horren egoera estatu batean ala bestean, erregimen politikoaren (Mendebaldekoen antzeko demokrazia formala batzuek, diktadura militarra besteek) eta autonomia-mailaren arabera (apartheid-egoera batzuek, eskubide linguistiko eta kulturalen erabateko aitortzea besteek, autogobernu-erakunde politiko eta guzti). Bestalde, zatiketa handia dago aipatutako herrian: batzuk indarra erabiltzearen aldekoak dira; beste batzuk, aldiz, negoziazioaren eta presio politikoaren aldekoak. Zatiketa horrek enfrentamendu larriak eragin ditu jada, eta gerra zibila ere ekar lezake.

## 2.1. Fitxa

- 1 Herri askotan ditugu gatazkak gaur egun. Venezuelan, adibidez. 2003ko urtarrilekoa da honako gutun hau. Idazkiaren edukia eta gatazkaren bilakaera hobeto ulertzeko, aztertu herri hartako egoera (gutuna idatzi zenekoa eta gaur egunekoa). Identifikatu zergatiak, interesak, protagonistak...
- 2 Gutuna irakurri ondoren, aztertu taldeka zer ekarpen egiten duen gutunak gatazkak maneiatzeko balio, jarrera eta tresnei dagokienez.

### Gehiago jakiteko...

Fe y Alegría herritarrak hezteko eta sustapen sozialerako mugimendua da. Gizarteko sektore pobre eta baztertuekin lan egiten du, haiek garatzeko eta gizartean parte-har dezaten ahalegintzeko. Giza premiak asetzeko gogoia duen jendea elkartzen du mugimendu honek, ikuspegi kritikoa duena betiere. **Hezkuntza-mugimendua da**, herritarren prestakuntza bultzatzen baitu (herritar libreak, solidarioak, dituzten gaitasunez eta inguruko egoeraz ohartzen direnak, trszendentziari atea zabalik uzten diotenak eta bere buruen jabe direnak). **Herrikoia da**, herri-komunitateetatik eta haiekin elkarlanean bultzatzen baitu hezkuntza, aldaketarako ekimen pedagogiko eta politiko gisara betiere. **Integrala da**, gizakiaren alderdi guztiak hartzen baititu kontuan hezkuntzak. Eta **soziala da**, herritarren premia jakin batzuk asetzen eta bidegabeke-ria-egoerak gainditzen saiatzen baita, gizarte zuzenagoa, solidarioagoa, demokratikoagoa eta parte-har-tzaileagoa eraikitze bidean.

Venezuelan sortu zen mugimendu hau, 1955ean hain zuzen ere, ingurune pobreetan hezkuntza-zerbitzuak eskaintzeko. Beste hainbat herrialdetara hedatu da harrezkero mugimendua: Ekuador (1964), Panama (1965), Peru eta Bolivia (1966), El Salvador (1969), Kolonbia (1971), Nikaragua (1974), Guatemala (1976), Brasil (1980), Errepublikak Dominikarra (1990), Paraguai (1992), Argentina (1995) eta Honduras (2000). Espainian (1985), berriz, laguntza- eta sentsibilizazio-plataforma gisara eratu zen.

Informazio gehiago: [www.feyalegria.org](http://www.feyalegria.org)

## ELKARGUNEA

### ELKARREKIN EGITEKO ZENBAIT HAUSNARKETA

Egoera latz eta mingarrietan (jasaten ari garen hauetan, adibidez), are indar handiagoz ageri zaigu besteenganako hurbiltasunaren premia, norberak daukan hoberena besteekin partekatze-ko beharra. Horixe gertatzen zaigu Fe y Alegría familia osatzen dugunoi ere.

Herriaren parte garenez, haren tentsioak eta gatazkak guri ere badagozkigu. Alabaina, gure egoitza eta programetatik datozkigun informazio pozgarrien berri eman nahi dizuegu lehenik eta behin: izan ere, elkargune eta begirune-leku bihurtu dira gure egoitzak eta programak, Venezuelako egoeraz interpretazio eta ikuspegi desberdinak nabari diren arren, jarrera politikoak ere ezberdinak baitira (zilegiak, guztiak ere). Gure ustez, erakundearen nortasun sendoak –gure ideia, fede eta hezkuntza-zereginarekiko konpromisoan oinarritua– erraztu egiten du errespetu-, elkartze- eta elkarbizitza-giro hori. Bestalde, esperientzia atsegina eta guztiz didaktikoa dugu, tentsio- eta gatazka-giroan suertatu zaigun arren.

Zehazki, errespetu-giro horren, aniztasuna eta diferentzia onartzeko jarrera horren, adibide dira gure zentroak. Jakina, interpretazio eta epai politikorik ere egin izan da gure jardueraz, horietako batzuk ez oso intentzio onekoak. Ulertzekoa da hori ere. Uste dugu, ordea, zintzo ari garela jokatzeko, bat datorrela gure jarduera erakundearen historiarekin eta helburuekin, hots, lehentasuna ematen diogula haurren, gazteen eta helduen hezkuntzari. Bestalde, uste dugu gure eskola eta zentroek topagune izan behar dutela –hala izaten ari direlakoan gaude–, hezkuntza-komunitateari zabalduak betiere, aniztasuna onartzeko, gure herria hobeto ulertzeko, gure hezkuntza-lana balioesteko, herritarrei duintasuna emateko, zauriak sendatzeko, beldurak uxatzeko eta itxaropena hedatzen jarraitzeko. Horrenbestez, hezkuntza aldetik garrantzi handia du gure herriaren egungo egoera zail honek, bai guretzat bai gure gizartearentzat.

Guztiok ahalegintzen gara gauzatzen eta hezurmitzen Gabonetako agurreko “lau kristau esaldiak”: “besteak aintzat hartzea”, “hitza (elkarrizketa) bai,

gerrarik ez”, “zer emateko gaude prest?” eta “elkartasuna eraikitzea da gure kristau-bereizgarria”. Irizpide horiek, ordea, ez dira txertoak, ez gaituzte immunizatzen egungo arazoaren aurka. Orain, inoiz baino indar handiagoz, gure sorburuetara itzuli beharra daukagu: hasierako karismara eta ideietara, gure balio-ondare aberatsera, gure eginkizun pedagogikora, gure komunitateetarako konpromisoetara (haiekin egotea, laguntzea eta elkartzea)... Fe y Alegríaren historian izan ditugu egoera zailak, baita irizpide ezberdin edo kontrajarriak ere; baina, gure eginkizunarekiko leialtasunari eta gure hezkuntza-lanaren hartzailerekiko konpromisoari esker, errazagoa izan zaigu gatazkei aurre egitea. Halaxe gertatzen da bikote barruko gatazketan ere, hau da, seme-alaben premiei ematen zaie lehentasuna.

Gatazka-egoera honen sustrai sakonena honetan datza, agian: gure herriko jende xehe gehiena modernizazio-prozesuetatik kanpo geratzen dela beti. Horren ondorio larriena, berriz, beste bazterketa-era batzuk dira, gero eta indartsuago ageri direnak: batetik, erabateko polarizazioa, non alde bakoitzak bestea erabat baztertu, ezabatu nahi duen; bestetik, alde biek ezikusiarrena egin eta baztertera uzten dituzte guztiontzako Venezuela nahi duen gehiengoak, hots, justizia, demokrazia, benetako parte-hartzea eta gatazkak elkarrizketa eta negoziazio bidez konpontzea nahi duen gehiengoak. Kristau garen aldetik, ezin dugu onartu ez bazterketa bat ez bestea. Horrenbestez, ez dugu onartzen Fe y Alegrían jarrera baztertzailerik, ezta bestela pentsatzen dutenen aurkako jokabiderik ere. Are gehiago: ziur gara, Venezuelak ez duela bideragarritasunik, oinarritzat hartzen badu, aurkaria suntsitzeko eta baztertzeko bidea, ezta gehiengoak nahiz gutxiengoak baztertzeko bidea hartuta ere. Horregatik, uste dugu gure errespetu- eta elkartze-esperientzia (oraindik ere ahula eta sendotu beharrekoa izanik ere), norbera bakean bizitzeko eta duintasunez hezteko era ez ezik beste zerbait ere badela: nazioari egiten diogun ekarpena, geure hezkuntza-eremutik betiere.

Gatazkak aurrera egin ahala, gero eta nabariagoa da, hark eragindako hondamen ekonomiko eta

soziala, larria benetan. Hilabete luzez (urte luzez, agian) pairatuko ditugu, seguruenik, ondorioak. Litekeena da, gure komunitateetako familiekin (eta guk geuk ere) estutasun are handiagoak jasan beharrean gertatzea, gure bizi-kalitatearen kalteetan. Fe y Alegría erakundeari berari ere garai txarrak egokituko zaizkio, seguruenik. Gure konpromisoa, elkartasuna eta zorroztasuna zertan diren probatzeko aukera bikaina izango dugu.

Egoera honetan, bada, bi tentaziori uko egin beharrean gara. Krisia larriagotu ahala, gainera, areagotu egingo dira tentazioak: indarkeriari ekitekoa, bata; etsipenean jaustekoa, bestea. Arma edo ukabilak erabiltzeko tentazioan eror gintezke, edo kale-iskanbila zalapartatsuan aritzeko tentazioan. Edo, beharbada, beste indarkeria-mota batean, oso zabaldua eta besteak bezain mingarria: hitz-gogorkeria, besteei hitza ukatzea, zurrumurrua, ironiazko iruzkina, errua beti "besteei" leporatzea... Etsipen antzugarri eta inhibitzailean ere eror gintezke, mende-erdiko gure historiari bizkarra emanez. Orain dugu gure Fedea berresteko garaia, hura baitugu krisi, gatazka eta zailtasun guztiak gainditzeko Itxaropen-iturri; orain dugu Alaitasuna berresteko unea, kemen- eta konpromiso-iturri agortezina.

Tentazioan ez erortzea ez dugu aski, baina. Sormena areagotu beharra daukagu, gure balioak sakondu. Umiltasun osoz, gure historiari leialtasuna eta esker ona erakutsiz, "geure iturritik edan behar dugu"; han ase behar dugu egarria, han garbitu zauriak, bai gureak bai krisiak kolpatuko dituen asko eta askorenak. Gure kristau-izatearen, espiritualtasunaren, pobreenekiko bategite-esperientziaren ur bizian edan behar dugu, gure sorrera-espiritutik (erakundearen eta zentro bakoitzarenetik), hari esker utzi baikenituen alde batera diferentziak eta behartsuenak hezte-lanari ekin.

Erdimin-garaiak ditugu oraingo hauek, arriskuz eta aukeraz beteak. Venezuela, noski, ez da lehengo bera inoiz izango. Gure erantzukizuna da hobeia izan dadin ahaleginak egitea.

Gure zentro- eta programa-zuzendariei eta arduradunei eskatzen diegu egin ditzatela hausnarketok erakundeko langileekin, ikasleekin eta komunitateekin, ahal duten neurrian bederen. Egia bihur dezagun, bada, gure aurtengo leloa: elkar-gune izan dadila Fe y Alegría.

Caracas, 2003ko urtarrilak 21.

Jesús Orbegozo, sj

Zuzendari Nagusia

#### KONTSEILU NAGUSIKO KIDEAK

Trina Carmona	Eskoletako Zuzendari Nagusia
José Rafael Roca	Fe y Alegría Irrati Institutuko (IRFA) Zuzendaria
Julio Jiménez	Jesús Obrero Unibertsitate Institutuko Zuzendaria (IUJO)
Antonio Pérez Esclarín	Padre Joaquín Eskolako Zuzendaria (CFPJ)
Ignacio Beascoetxea, sj	Administratzaile Nagusia



# Historia



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

# Helburuak

- Historia garaikideko zenbait egoeratan izandako indarkeriarik gabeko hainbat defentsa-esperientzia eza-gutzea.
- Eraso armatuei indarkeriarik gabe erantzuteko estrategiak bilatzea.
- Munduko hainbat lider bakezaleren jardueraz eta haiek gatazka-egoerei ematen dieten erantzunaz haus-narketa egitea.
- Bakearen eta indarkeria-ezaren aldeko jokabide konprometitua eta arduratsua bultzatzea.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: Inbaditu egin gaituzte eta defenditu egin behar dugu<sup>1</sup>

**Deskribapena:** Ikasleei simulazio-joko bat egitea proposatzen zaie. Helburua gure herria inbaditzen dutela imaginatuz, inbasioari aurre egiteko leudekeen indarkeriarik gabeko bitartekoak eszenaraztea da. Hainbat taldetan banatu eta giza talde baten rola hartu beharko du bakoitzak: nekazariak, langileak, buruzagi politikoak, dendariak, irakasleak, kazetariak, ikasleak... Inongo indarkeria-metodirik gabe erasotzaileei aurre egiteko dauden bide guztiak jorratu behar ditu talde bakoitzak. Zer egin erasotzaileak nekatuta, nahastuta, inork obeditzen ez diela sentiarazteko? Zer egin okupazioak ez duela merezi eta hobe dutela alde egitea sinestarazteko? 1.1. fitxan hainbat ohar dituzte ikasleek, historian zehar izan diren indarkeriarik gabeko defentsa-esperientziei buruzkoak.

**Materiala:** 1.1. fitxa.

**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** 90 minutu.

**Iradokizuna:** Eskatu ikasleei zenbait estrategia prestatu eta proposatzeko hurbilekoak dituzten hainbat egoeratarako.

### 2 Jarduera: Bake-liderrak

**Deskribapena:** Gatazka bati eman dakizkiokeen erantzun-mota guztiak adierazten dira 2.1. fitxan. Informazio horren arabera, eztabaidatu zer erantzun diren egokienak. Ondoren, egin taldeka munduko bake-liderren zerrenda bat, eta aztertu haietako bakoitzak zer erantzun eman zion egokitu zitzaion gatazkari.

**Materiala:** 2.1. fitxa eta Internet.

**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko saio bat.

<sup>1</sup> Honako honetatik egokitua: <http://www.pangea.org/edualter/material/ddhh/dinam.htm>

# 1.1. Fitxa

## Hasierako oharrak<sup>2</sup>

- 1 Mundu osoko desarme-hitzarmena izenpetu du gure herriak, eta armategi guztiak desegin ditu.
- 2 Gu bizi garen estatua inbaditzekotan dabil erasotzaile bat (egiazko herrialde bat edo etsai hipotetikoren bat).
- 3 Lehenbiziko erasoaren ondoren, buruzagi politikoek diote ez dela defentsa militarrik egingo, horrek alferri-kako heriotzak besterik ez lukeela eragingo eta. Erasotzaileek herrialdea inbaditu eta okupatu egin dute, aurkako inolako indarkeriazko erresistentziarik gabe.
- 4 Azkenik, erasotzaileek herrialdea beren menpe hartu eta, errepresioaren bidez, diktadura ezarri dute.

## Estrategia:

Asmatu hamar minututan inbasioari aurre egiteko indarkeriarik gabeko taktikak (adibidez: nekazariak, garaiz kanpo lantzea soroak; langileak, berriz, gaixo jartzea edo motelago lan egitea; ikasleak, eskola-administrazioa hankaz gora jartzea, denek administraziora joz kexak azaltzea). Azaldu zer ondorio ekar ditzakeen proposamen horietako bakoitza aurrera eramateak (gosea, espetxea, lanik gabe geratzea, hiltzea...).

Aztertu elkarrekin taktika guztiak.

## Oharrak:

Hona hemen historian zehar izandako indarkeriarik gabeko hainbat defentsa-esperientzia:

Lehenbiziko kristauak: desobedientzia zibila, intsumisioa.

1765-75: Eragozpen fiskala, boikot ekonomikoak eta politikoak.

1850-67: Hungariaren erresistentzia pasiboa Austriaren aurka: Zergarik ez ordaintzea, austriarren produkturik ez erostea, derrigorrezko soldadutzarik ez egitea, bertako gizarte- eta produkzio-programak martxan jartzea (hezkuntza, justizia, ekonomia...).

1905-06 eta 1917: Iraultzak Errusian.

1909: Zenbait emakume trenbidean etzaten ziren, Marokoko gerrara soldadu espainiarrak zeramatzaten trenei aurrera egiten ez uztearren.

1914: Milioi bat langilek eskatu zion Madrilo gobernuari aliatuekin gerrara EZ joateko.

Indarkeriarik gabeko borrokak Alemania naziaren aurka: Norvegian, Danimarkan, Berlinen bertan (80.000 intsumisio-tik gora fusilatu zituzten).

1944-45: Borroka zibilak Erdialdeko Amerikan: Guatemalan, El Salvadorren...

Indiako independentziaren aldeko mugimendua.

Emakumezkoen boto-eskubidearen aldeko gose-grebak.

1952, 1959, 1979-80: Hego Afrikako borrokak.

1953: Grebak Sobiet Batasuneko preso politikoaren eremuetan.

1957: Diktaduraren eraispena herritarren erresistentzia masiboetatik (atxiloketa masiboak...).

1964-1975: Vietnameko gerraren aurkako erresistentzia.

Ekologisten borrokak naturguneak babesteko, poluzioaren eta arma nuklearren aurka...

Indarkeriarik gabeko estrategiak eta intsumisioa Balkanetako gerran, baita lurralde okupatuetako Israelgo armadan ere...

Amen eta senitartekoen mugimenduak: beltzezko emakumeak (Balkanetan), maiatzeko plazako amak (Argentina)...

<sup>2</sup> Honako honetatik egokitua: <http://www.pangea.org/edualter/material/ddhh/dinam.htm>

## 2.1. Fitxa

Hainbat eratako erantzunak eragiten dituzten gatazkek. Ralph Kilmanek eta Kenneth Thomasek diotenez, bost erantzun-mota daude:



- LEHIATZEA:** Norbera bere helburuez bakarrik arduratzea, gainerako jendea kontuan izan gabe.
- GATAZKA SAIHESTEA:** Ez norberaren interesengatik ez besteenengatik ez borrokatzea.
- AMORE EMATEA:** Beste norbaiten premietara egokitzea.
- NEGOZIATZEA:** Alde biek zerbait lortzea, eta inork ez dena.
- ELKARLANEAN ARITZEA:** Alde biek ahalik eta onura handiena lortzea.

### Taldean eztabaidatzeko

- Badago besteak baino erantzun hobetik edo egokiagorik? Zein? Zergatik?
- Zer erantzun-mota eman ohi diegu etxe barruko eguneroko gorabehereri? Eta eskolakoei? Eta gizarte-koei? Eta nazioartekoei?
- Beti egoten da elkarlaneko erantzuna emateko aukera? Beti da egokia erantzun-mota hori? Zergatik?

**Egin dezagun munduko bake-liderrren zerrenda,  
eta hausnar dezagun haiek egindakoaz**

- Asko dira bake-liderrak?
- Zer erantzun-mota eman zion haietako bakoitzak egokitu zitzaien egoerari?
- Hautatu zerrendako pertsona bat eta sakon aztertu haren jokabidea eta erantzuna. Bilatu protagonistak, prozesuak, helburuak, jarrerak... Bazuen liderrak beste nolabaiteko erantzuna emateko modurik?

Behar bada, lehiaketa-erantzunak eman izan dituzte  
batzuetan bake-liderrak.

Harrigarria inuditzen zaizue?

Batzuetan lehiatzea beste biderik ez dago  
kausa batzuk defendatzeko.

Heriotza-zigorren aurka jarduteko, adibidez, zer  
erantzun-mota erabili behar da?

Era askotara lehia gaitzke; kontua da indarkeriarik ezaren  
bidetik jotzea eta beradiskidetzeko zubiak eraikitzea beti.

Hau da, inori kalterik ez egiteko modua eta elkarlanerako  
bidetan jartzeko modua lehiatu behar da.

# *Hizkuntza eta literatura*



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

## Helburuak

- Ipuin baten amaiera idaztea, hizkuntza txukun erabiliz eta sormena landuz.
- Kultura minoritarioetan gizarte industrialek duten eragina aztertzea.
- Komunikabideen informazio-transmisore eginkizuna zalantzan jartzea.
- Komunikabideek herritarren irizpideetan duten eraginaz hausnartzea.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: Ardi beltza

**Deskribapena:** Ikasleek (banaka) “**Baina, zein da, egiazki, ardi beltza?**” testua irakurri ondoren, ipuinari amaiera asmatu behar dio bakoitzak. Ondoren, bosna laguneko taldeak osatu eta aztertu zer eratako ardi beltzak dituen gure gizarteak. Jarraian, bilatu tolerantzia edo intolerantzia adierazten duten jarrerak, hitzak, keinuak, pertsonaiak, albisteak, kantuak eta literatur obrak. Bildu asmatutako ipuin-amaiera guztiak eta azaldu bakoitzak dioena. Talde bakoitzak amaiera bakarra hautatu behar du. Ikasgelan irakurri hautatutako guztiak. Amaitzeko, ezta-baidatu bi gai hauetaz: arrazismoa gure gizartean, eta kultura minoritarioei gizarte industrialek dakarkieten kaltea.

**Materiala:** 1.1. fitxa.

**Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko bi saio.

### 2 Jarduera: Komunikabideen auzia<sup>1</sup>

**Deskribapena:** Ikasleek zalantzan jarri behar dute komunikabideek informazioa emateko duten ustezko objektibotasuna. Ikasle bakoitzak gaur egungo gatazka bat aukeratu eta konparatu egin behar du horretaz bi komunikabidek (telebistako bi albistegik, bi egunkarik...) ematen duten informazioa. Elkarrekin egin hausnarketa, norberak bere azterketa egin eta gero.

**Materiala:** 2.1. fitxa.

**Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko bi saio.

<sup>1</sup> Honako honetatik egokitua: Sáez, P. (2002). *Guerra y Paz en el comienzo del siglo XXI*. CIP: Madril.

## 1.1. Fitxa

### BAINA, ZEIN DA, EGI AZKI, ARDI BELTZA?

Entzun duzue inoiz “artile bila joan eta ilea moztuta itzuli zen aharia” dioen gaztelaniazko esaera?

Bai, noski, eta behin baino gehiagotan erabiliko zenuten zeuok ere. Badakizue, ordea, nondik datoren esaera hori? Bada, neuk kontatuko dizuet.

Udaberri-usaina zebilen jada giroan. Eguna argitzen ari zen, pixkanaka, eta eguzkia ateratzen. Landareek zabaldu egiten zituzten hostoak, eguzki-izpiak bereganatu nahian. Artean erdi-ezkatuan zebilen eguzkia. Bizia borborka ari zen esnatzen.

Joxepa ardia eta Joxemari aharia ere urduri samar esnatu ziren goiz hartan. Izan ere, udaberriarekin batera zetorren bikotearen lehenbiziko arkumea.

Oso-oso famatua zen artalde hartako azienden zurtasuna. Izan ere, artaldeko ardi eta ahari guzti-guztiek ile zuri-zuria zeukaten, elurra bezalakoa. Harro zeuden denak zurtasun hura zela eta.

Joxepa eta Joxemariaren arkumea (Josetxo), ordea, beltza jaio zen, ikatz-pusketa bezain beltza. Joxepa ardiak etengabe miazten zion ilea Josetxo arkumeari, hala zurituko ziolakoan. Harrituta zegoen ardia, ahaleginak egin arren ez baitzen batere zuritzen arkumearen ilea. Josetxo arkumeak urruma eta balaka eskertzen zituen amatxoren laztan goxoak. Ardiak, berriz, bere maitasun eta samurtasun guztiaz ferekatzen zuen kumea, haren ilaje beltzari jaramonik egin gabe.

- Genetika-kontua dugu ilearena, dudarik gabe, asaba ilunen baten ondorioa –esan zion Joxemari ahariak emazteari, harengan konfiantza osoa zuela adierazi nahian–.

- Gogoratzen duzu eskolan Mendel izeneko zientzialariari buruz hitz egin zigutela? Bada, guk ere ile belzdun asabaren bat izango genuen, eta haren antza izango du gure Josetxok.

Zitzu batean zabaldu zen arkume beltzaren berri artalde osoan, baita ardiak asalatu ere.

- Ene, jainkoa! –zioten gainerako ardiek, beren arkumeen ile zuri-zuria orrazten zuten bitartean

- Ez du sekula ile zuririk izango arkume horrek, errekan sarri garbitzen badu ere.

- Lotsarik ere ez daukate!

- Ile beltz horrek ez du inoiz balioko gure ile zuriak adina!

- Guraso gaixoak! A zer zorigaiztoa tokatu zaien!

Josetxo arkumearen gurasoei, ordea, bost axola ziztaizkien gainerako ardien txutxu-mutxuak, pozik asko bizi ziren kumearekin. Josetxo, berriz, gero eta handiagoa, gero eta bizkorragoa ari zen egiten.

Egunez, elkarrekin ibiltzen ziren larrean. Josetxo lasterka joaten zen errekarra, honek alde egingo zion beldurrez edo. Geldi-geldi geratzen zen erreka bazterrean, makalen itzalei begira. Gustura entzuten zituen adarrik adar zebiltzan txorien solas eta barreak. Hostoz betetzen hasiak ziren zuhaitz-adarrak. Arbolon zurrumurrua eta erreka soinu gozoa entzuten zituen. Gero, poliki-poliki, makurtu eta ura edaten zuen. Muturrak ura ukitzen zuenean, arkumearen itzala uhinez betetzen zen. Josetxok, orduan, algara bizian ekiten zion barreari, irakiten ari den lapikoaren antzera.



Gauak argia ezkututzen zuenean, haizeak ilargia bil-bil egiten zuen, harila balitz bezala. Josetxo arkumea ere amatxo Joxeparen ondoan geratzen zen bil-bil eginda, harila bezala, biak loak hartzen zituen bitartean. Gustura egoten zen horrela Josetxo, barruan berotasun gozoa sentitzen zuela.

Baina Josetxo arkumeari ere iritsi zitzaion eskolara joateko eguna.

- Hori bai ez dagoela onartzerik! –zioten ardi batzuek.
- Horixe besterik ez genuen behar: arkume beltza eskolara! –zioten beste batzuek, oihuka.
- Nahikoa pazientzia izan dugu arkume beltz horrekin! Gure arkume zuriekin batera hazten utzi diogu, baina eskolara joan eta gure arkumetxo

zuriekin ikasi eta jolastu... ezta pentsatu ere!

Batzarra egin zuten, bada, ardiek. Oihuka eta ke-xaka ari ziren denak, baina inork ez zuen erabaki taxuzkorik proposatzen. Azkenik, ahari zaharrenak honako hau esan zuen, zaharren ahotsari darion patxadaz:

- Nik uste dut egokiena dela batzorde bat eratzea familia horri esateko artalde hau ile-zuritasunagatik izan dela famatua betidanik, ezin dugula onartu ardi beltzik. Artilea beti zuria izatea, horixe da guretzat garrantzitsuena.

Denak ados ziren, bada (eta bakarren bat hala ez bazegoen, ez zen esatera ausartu). Ardi otzan legez onartu zuten denek proposamena. Izan ere, kontzientziak arrazoibide xelebreenak erabiltzen ditu, batzuetan, hala komeni zaionean.

### ***Istorioren benetako amaiera***

Joxemari ahariak eta Joxepa ardiak adeitsu hartu zituzten batzordeko kideak, lagunak hartu ohi diren legez, alegia. Ardien asmoen berri entzun zutenean, ordea, begietara tinko so egin zion Joxemari ahariak batzordeburuari eta honela mintzatu zitzaion:

- Alde oraintxe bertan gure etxetik! Egia zioen, bai, “ardiak baino ergelagoak zarete” esan zuenak! Ez dakizue zeuon kabuz pentsatzen? Ez dakizue askatasuna dela benetakoa izateko aukera bakarra?

Hortik dator, bada, istorio honen hasieran aipatu dugun esaera:

“Artile bila joan eta ilea moztuta itzuli zen aharia”

## 2.1. Fitxa

Hautatu gaur egungo gatazka bat. Aztertu nola ematen duten hari buruzko informazioa telebistako bi albistegik edo bi egunkarik, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- ✓ **Zer:** Albistearen oinarritzko edukia, mamia.
- ✓ **Nork:** Protagonista edo protagonistak.
- ✓ **Noiz:** Albistea zehazki noiz gertatu den.
- ✓ **Non:** Albistea non izan den.
- ✓ **Nola:** Gertakariak nola sortu eta izan diren.
- ✓ **Zergatik:** Arazoaren aurrekariak, zergatiak...

### Taldean hausnartzeko

- Berdin tratatu dute informazioa bi komunikabideek?
- Badago alderik batera bestera albistea aurkezteko eran? Eta edukiari dagokionez?
- Zergatik gertatzen da hori? Zerk eragiten duela uste duzue?
- Zuen iritziz, gizarteak informazio objektiboa jasotzen du munduan gertatzen denaz?
- Garrantzi handiko eginkizuna dute komunikabideek egungo gatazken informazioari dagokionez. Zuen ustez, zer helbururekin ematen dira ikuspegi partzialeko informazioak?
- Zer eragiten du gai berari buruzko informazio desberdinak jasotzeak?
- Normalean, egunkari bat bakarrik irakurtzen edo telebista-kate bateko albistegia ikusten dugu. Nolako informazioa eskaintzen digute?
- Zer iradokizun egingo zenieke zure ikaskideei eta gizarteari gai horri buruz?

# Matematika



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

# Helburuak

- Datuak konparazio bidez maneiatzea, tratatzea eta aztertzea.
- Datuak grafikoki azaltzea, haien interpretatzea eta haien bidez ondorioak ateratzea.
- Hondakinen eta haien tratamenduaren arteko auzia ulertzea. Hondakinen arazoa konpontzeko bideak aztertzea.
- Gatazkak maneiatzeko eta konpontzeko tresnatzat hartzea herritarren partaidetza.
- Gatazka ikasbidetzat hartzea.

# Jarduerak

## 1 Jarduera: Zer egin hondakinekin?

**Deskribapena:** Ikasleei, gure eguneroko bizimoduan sortzen dugun hondakin-kantitate kezkgarria aztertzeko proposatzen zaie. Horretarako, arazoaren larritasuna are nabarmenago agertzeko, kalkuluak egiteko eskatzen zaie (1.1. fitxa). Emaitza horiek oinarri hartuta, taldean hausnarketari ekitea proposatzen da. Ikasleen sormena bultzatu daiteke, gatazkak konpontzeko bideak aurki ditzaten. Azkenik, ikasleei errausketa-instalazio batera bisita egitea proposatzen da, bertatik bertara ikusteko hondakinen tratamendua eta, era berean, hondakinak tratatzeko sistema batzuen eta besteen abantailak eta desabantailak aztertzeko.

**Materiala:** 1.1. eta 1.2. fitxa.

**Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko saio bat eta bisita errausketa-instalaziora.

**Iradokizuna:** Hobe, betiere, errausketa-instalaziora bertara joatea; ezin bada, ordea, bisita birtuala ere egin daiteke Internet bidez.

## 2 Jarduera:

### Ikerkuntza militarren gastua

**Deskribapena:** Kalkulatu zenbat gastatzen den zientzia-, osasun-, nekazaritza- eta arrantza-ikerkuntzan eta konparatu estatu espainiarrak ikerkuntza militarrean urtean gastatzen duen kantitatea-rekin. Azaldu zenbateko desoreka dagoen ikerkuntza baterako eta besterako erabiltzen den diru-kopuruan. Datu horiek aztertu ondoren, jorratu honako gai hau: ikerkuntza militarreko erabiltzen den diruaren eta bake-kulturaren arteko gatazka. Herritarren partaidetza nola bultzatu aztertu behar dute ikasleek, aipatutako gatazka gainditzeko betiere.

**Materiala:** 2.1. fitxa.

**Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko saio bat.

**Irardokizuna:** Jarduera horren osagarri gisara, erabil daiteke ALBOANen “Zientzia eta E(rre)boluzioa” unitate didaktikoa (Mensajero argitaletxea), ikerkuntza zientifikoari eta militarri buruzko hainbat datu baititu.



## 1.1. Fitxa

Hona zabor-poltsa estandar baten edukia: %30, papera edo kartoia; %5, beira; %5, plastikoa; %50, materia organikoa; %10, beste gai batzuk. Herritar bakoitzak 1 kg hondakin sortzen du eguneko.

### 1 KALKULATU

- Non eta nola sortuak dira zabor-poltsa estandar bateko hondakinak?
- Zenbat paper-gramo botatzen ditu zakarretara urtean herritar batek?
- Osatu taula hau:

Herritar batek egunean botatzen duena	Horrenbestez, sei milioi lagunek kopuru hau botatzen dute	Guztira urtean
Edari-lata bat		
20 litro ur		
botoi-pila baten 1/30		
100 gramo paper		
Plastikozko botila bat		
150 gramo haragi		
5 zigarro-punta		

- Zabortegeiak berehala betetzen dira. Demagun 1.000 laguneko herri bateko biztanle bakoitzak honako zabor-kantitate hau botatzen duela egunero zabortegeira: 20 cm X 20 cm X 20 cm-ko ontzi baten edukieraren balio-kidea. Demagun, bestalde, zabortegeiaren edukiera 1 km<sup>3</sup> dela. Zenbat denbora behar du zabortegeiak erabat betetzeko?
- Honako taula honen datuak aztertuz, herrialde guztietan hondakin kantitate bera sortzen ez dela ikus dezakezu.

Kalkula ezazu: giza garapen altuko, ertaineko eta baxuko herrialdeen batezbesteko ekoizpena; hondakin orokor eta birziklatze eta/edo errausketaren arteko erlazioa...

Herrialdea	Urtea	Guztira sortua <sup>1</sup>	Betegarri kontrolatuak	Birziklatze	Errauste	Konpostatze	Baste batzuk
Alemania	1990	21.615	14.219	ee	6.039	369	988
Argentina	1993	36.976	18.978	8.628	6.429	2.013	928
Australia							
Brasil							
Kanada	1992	18.800	14.070	3.400	1.101	218	ee
	1996	20.598	19.568	5.404	1.030	576	ee
Txile							
Txina							
Hego Korea	1996	18.223	12.452	4.776	995	ee	ee
Costa Rica							
Kuba							
Egipto							
Espania	1993	14.256	12.061	ee	635	1.560	ee
	1996	15.307	11.758	96	705	2.394	ee
Estatu Batuak <sup>2</sup>	1993	187.790	117.028	34.929	2.993	5.821	df
	1996	190.204	105.453	41.740	32.741	10.270	ee
Finlandia <sup>3</sup>	1990	3.100	2.400	600	df	df	df
	1994	2.100	1.500	700	50	70	ee
Frantzia <sup>4</sup>	1992	20.500	9.500	740	7.600	1.300	1.360
	1995	28.800	9.593	385	10.352	1.716	89
India							
Japonia	1991	50.767	19.379	1.688	3.616	57	742
	1993	50.304	14.958	2.103	38.013	19	258
Kenya							
Mexiko <sup>5</sup>	1993	28.089	4.935	191	df	df	22.962
	1997	29.272	10.269	219	df	df	18.783
Erresuma Batua <sup>6</sup>	1989	2.000	14.000	1.000	2.500	df	ee
	1996	26.000	21.800	1.500	2.200	300	200
Errusia	1992	26.000	24.700	ee	950	350	ee

<sup>1</sup> Sortutako hondakin kantitate guztia adierazten du. Batura, ondorengo bost aldagaiena baino baxuagoa izan daiteke, aurre-tratamendu (errauste, konpostatze) bat jasaten duten hondakinak betegarri moduan erabiltzen baitira.

<sup>2</sup> Errauste-tratamendua jasan duten hondakinak barne sartzen dira.

<sup>3</sup> Adituek kalkulaturako datuak dira.

<sup>4</sup> Tamaina handiko hondakinak ezik, etxeko hondakinei egiten die erreferentzi.

<sup>5</sup> Konpostatze aldagaia honela defini daiteke: hondakin solidoen tratamendua, kontrolaturako prozesu biologikoen bitartez, normalean aerobikoa, konpost moduan ezagutzen den produktua lortzeko. Ezaugarri zehatz batzuk ditu eta oso erabilgarria da nekazaritzan, lurra hobetzen laguntzen baitu. Beste batzuk: lurrezko betegarri ez kontrolatuak eta aire zabaleko botatze-tokiak barne sartzen dira (III.6.1.2. taula).

<sup>6</sup> Ingalaterra eta Galesko hondakinak bakarrik adierazten dira.

df: datu falta.

ee: ez esangarria

Oharra: Iturriak ez du informazioa ematen gela-hustuen kasuan.

Iturria: OECD, OECD Environmental Data, Compendium 1995 eta 1999, OECD Publications, Frantzia, 1995 eta 1999.

Sedesol, Hiri eta Etxebizitza Garapeneko Idazkariordea, 1999.

Sedesol, "Promoción del buen manejo de los residuos sólidos municipales; Procesamiento de residuos sólidos municipales (composteo)", Mexiko, 1995.

## 2 HAUSNARTU

- Datu horiek guztiak ikusirik, zer ondorio atera dituzue?
- Nola maneia daiteke gatazka hori? Zer neurri bururatzen zaizkizue ura aurrezteko eta hondakin gutxiago sortzeko?
- Zabortegien ordezeko sistemarik ezagutzen duzue, edo bakarren bat bururatzen?

## 3 EKIN

- Denon arazoa dira hondakinak, haien kantitatea, tratamendua... Hondakinen auzia maneiatzeko eta konpontzeko zenbait neurri proposatu dituzue lehen. Zer egin daiteke herritarrek neurri horiei ekiteko? Hausnartu, eta prestatu herritarrek kontzientziatu eta ohartarazteko estrategia. Zuen auzoan, institutuan, hirian... jar dezakezue martxan estrategia hori.



## 1.2. Fitxa

### Bisita errausketa-instalazio batera

- Zer helbururekin egin zuten instalazioa? Zergatik eraiki zuten leku horretan? Hondakinak tratatzeko bestelako instalaziorik badago? Esan zein diren.
- Jasotzen den zaborretik, zer portzentaje dator kale-garbiketatik? Eta, etxebizitza eta merkatuetatik? Kalkulatu zenbat zaborra sortzen duen zure hiriak. Nork erabakitzen du errausketa-instalazioak edo zabortegiak eraiki behar direla? Zeren arabera erabakitzen da bata ala bestea egitea?
- Zein dira errausketa-labearen prozesuaren faseak? Nolakoa da labea? Hondakin solidoetarako instalazio-etako labeak bezalakoa da? Galdetu labeari buruzko xehetasun teknikoak: lurrun-presioa, ura, tenperatura, zenbat denbora edukitzen diren labean hondakinak...
- Azaldu materialen prozesua. Deskribatu beheko solairua eta agente-gela. Zertarako da gela hori? Zenbat jendek lan egiten du instalazioan?

Hondakinak sartzen dira errausketa-instalazioetara, eta gasak irteten. Demagun 30.000 tona hondakin tratatzen dituela urtean errausketa-instalazio batek. Iragazketa elektrikoak egin eta gero, 180.000 kg azido klorhidriko isurtzen ditu instalazioak; arazketa-sistema osagarri batekin, berriz, 3.000 kg azido besterik ez. Zenbateko azido-murrizketa da hori?

- Bilatu informazio gehiago zabortegien eta errausketa-instalazioen abantaila eta desabantaileri buruz.

## 2.1. Fitxa

### ZENBAT DIRU GASTATZEN DU ESTATU ESPAINIARRAK IKERKUNTZA MILITARREAN?<sup>1</sup>

2003 urtean, 1.372,94 milioi euro (228.430 milioi peze-ta) gastatu ziren ikerkuntza militarrean, datu ofizialen arabera betiere. Aurrekontu-proiektuak ez zuen argitzen, ordea, beste 444 milioi euro ikerkuntza zibilerako edo militarerako erabili behar ziren. Baliteke, beraz, kopuru osoa 1.818 milioi euro izatea, hau da, estatu espainiarrak ikerkuntza eta garapenean gastatzen duen diruaren (4.000 milioi euro) %45 inguru.

Askoz handiagoak dira aurrekontuetako ikerkuntza militarerako gastuak beste edozein arlotako ikerkuntza eta garapenerakoak baino:

- *Zientzia sozial eta natural guztietako (kimika, fisika, biologia, matematika...) ikerkuntza-programetarako gastua baino hiru bider handiagoa (zehazki, 123,44 milioi euro handiagoa).*

- *Osasun-arloko ikerkuntzarako gastua baino zazpi bider handiagoa.*
- *Arrantza- eta ozeanografia-ikerkuntzarako gastua baino 35 aldiz handiagoa.*

Horrenbestez, programa militarrek dira estatu espainiarreko ikerkuntzaren lehentasuna, hau da, arma berriak sortzea. Herritarren bizia eta osasuna arriskuan jartzen duten hainbat gai ikertzeko (gaixotasun kardiobaskularrak, minbizia, HIESa, hondakin toxikoak, bideen eta jakien segurtasuna, hezkuntza-sistema...), berriz, askoz diru gutxiago erabiltzen da (izugarri gutxiago, kasu batzuetan).

- 1 Datu horiez baliatuta, kalkulatu zenbat diru inbertitzen den urtean osasun-, zientzia-, nekazaritza- eta arrantza-ikerkuntzan. Kontuan izateko beste datu bat: nekazaritza-alorreko ikerkuntzan zientifikoan baino zortzi bider gutxiago gastatzen da.
- 2 Kalkuluak egin ondoren, idatzi ateratako zifrak barra-kode batean. Begiratu zenbateko desoreka dagoen ikerkuntza militarerako eta beste alor batzuetarako gastuen artean.

<sup>1</sup> Honako honetatik egokitua: Fundació per la Pau erakundea. "Ikerkuntza militarrik ez!" kanpaina.

## Taldean hausnartzeko

- Zer deritzozue industria militarra herritarrok ordaindu behar horri?
- Uste duzue lehentasun soziala dela armamentu-sistema berrien ikerkuntza eta horretan gastatu behar dela ikerkuntzako aurrekontu publikoaren ia erdia?
- Ikerkuntza militarerako erabiltzen den dirutza beste ikerkuntza-alor batzuetatik kentzen da. Jokabide hori eta gure bake-kultura elkarri kontrajarriak dira. Zuen iritziz, zer egin behar da bake-kultura sustatzeko?
- Zuen ustez, nola alda daiteke egoera hori? Hausnartu zenbait eragilek auzi horretan duten garrantziaz, adibidez:
  - Zientzialariek.
  - Herritarrek.
  - ...
- Asmatu herritarrek parte-hartzeko bideak (kanpainak, erakundeak...) aurrekontu militarra ikerkuntzaren beste alor batzuetara bideratzen saiatzeko. Beste gatazka batzuetatik ere atera dezakegu ikasbiderik. Zer egin dute herritarrek antzeko gatazkek egokitu zaizkienean?

*Etika*



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

## Helburuak

- Gatazka-egoeran jarrerak, interesak eta beharrak identifikatzea, modu baketsuan aldatzeko.
- Pertsonak mugiarazten dituzten sentimenduak, motibazioak eta printzipio moralak baloratzea.
- Pertsonen artean bakoitzaren ikuspegiarengatik, interesengatik eta behararengatik sortzen diren desberdintasun politikoak eta ideologikoak ulertzea eta baloratzea.
- Edozein indarkeriaren, intolerantziaren eta diskriminazioaren aurrean eta klase sozialen arteko desberdintasunen inguruan jarrera kritikoa izatea.
- Elkartzeak duen indarraren balioa ulertzea eta ohorearengatik eta duintasunarengatik borroka baketsuek eta adimentsuek duten balioa ulertzea.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: Gatazkaren korapiloa

**Deskribapena:** Ikasleei gaien sartzeko posterrak arretaz begiratzeko eskatuko zaie eta ikurren bidez transmititzen dituzten mezuak interpretatzeko (jarrerak, balioak...). Posterrak ikusitakoan, taldeka jarri eta taldean sortzen diren ideiei eta pentsamenduei buruz hitz egingo dute.

Azkenik, guztiek elkarrekin eztabaidatuko dute, eta poster zurian gatazka ebazteko eta aztertzeke zer proposamen egin erabaki behar dute.

**Materiala:** Posterrak.

**Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa.

**Denbora:** 30 minutu.

### 2 Jarduera: Zer nahi duzu? Zer behar duzu?<sup>1</sup>

**Deskribapena:** Hiru talde egingo dira, eta horietako bakoitzari 2.1. fitxan aurkeztutako kasuko rol bana emango zaio. Talde bakoitzak aholkularitza eman beharreko familiaren interesak eta beren interesak zein diren aztertu behar du. 10 minutu pasatu ondoren, talde bakoitzak aholkularitza ematen dion familiaren interesak eta beharrak azalduko ditu, eta interes bateragarriak, bateraezinak eta behar komunak zein diren aztertuko dituzte. Hortik aurrera, hiru taldeek ados jarri behar dute; izan ere, familiek proposamen bateratua aurkeztu behar dute enpresan egingo den bileran.

**Materiala:** 2.1. fitxa.

**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko saio bat.

**Iradokizuna:** Irakasleak, sortzen diren eztabaidetan, moderatzaile lana egin dezake, eta interesen, jarren eta beharren artean nahasketarik sor ez dadin saiatu behar du.

<sup>1</sup> Honako honetatik egokitua: Programa por la paz (2001). *Desarrollo de habilidades para la construcción de la paz*. KIMPRES: Bogota (Kolonbia).

### 3 Jarduera: Barraskiloaren estrategia (La estrategia del caracol)

- Deskribapena:** “La estrategia del caracol” filma ikusiko dute; pelikula horren zuzendaria Sergio Cabrera da eta Kolonbian egin zuten 1994an (ikus 3.1. fitxa). Ondoren, bideoforuma egingo dute, 3.2. fitxako iradokizunak oinarri hartuta.
- Materiala:** “La estrategia del caracol” filma eta 3.1. eta 3.2. fitxak.
- Dinamika:** Taldekakoa.
- Denbora:** 50 minutuko hiru saio.

## 2.1. Fitxa

### KASUA

Añorgako Errotazar bidean hiru familia bizi dira: Sarasolatarrak, Oiartzabaldarrak eta Ugartetarrak. Orain dela gutxi, ubideari buruzko bilera egin zuten; bilera hartan jakinarazi zieten ubidea hiru familien lurretatik pasatuko dela eta, hartara, inguru guztikoentzako ur edangarria izango dela.

*Sarasolatarrek* uste dute ur hori ureztaketarako erabili behar dela eta ez gizakiek kontsumitzeko; izan ere, tarteka ibaira joan eta laboreetarako ura ateratzea asko kostatzen da eta lan hori egin behar ez izatea da haien helburua. Hala ere, ez dute komunitatean esan hori, agian urik gabe utziko dituztelako, eta bakar-bakarrik esan dute ez daudela ados proposamenarekin ura haien lurretan dagoelako eta, ondorioz, haiena delako.

*Oiartzabaldarrak* ubidea egingo duten langileei laguntzeko prest daude, beti ere haiek badira ur edangarria eskuratzen lehenak. Komunitateko batzuei proposamena egokia iruditzen zaie, baina beste batzuei ez, batzuk errekaetatik urrutiago bizi baitira eta, beraz, ura lehenbailehen behar dute.

Bestetik, *Ugartetarrek* ez dute haien lurretan makinari sartzerik nahi, lurra kaltetu egiten baititu; baina ur edangarria inguratzeari buruzko interesa dute. Zoritxarrez, ubidea egiteko, makinek haien lurretatik pasatu behar dute.

## Taldean lan egiteko

- 1 Hiru taldetan, aztertu ikasleen aholkularitza jaso behar duen familia bakoitzaren interesak:
  1. taldea: Sarasola familiaren gatazka-aholkularia.
  2. taldea: Oiartzabal familiaren gatazka-aholkularia.
  3. taldea: Ugarte familiaren gatazka-aholkularia.
  
- 2 Adierazi gainerakoei zein diren zuen familiaren interesak eta beharrak.
  
- 3 Talde handitan hauxe aztertuko dugu:
  - Interes bateragarriak.
  - Interes bateraezinak.
  - Behar komunak.
  
- 4 Ubidea egingo duen enpresarekin, gobernadorearekin, alkatearekin eta komunitatearekin bilera egingo dugu. Proposamen bakarra eramateko ados jarri behar dute ikasleek.

## Taldean hausnartzeko

- Ados jar gaitezke?
- Zein izan dira izan dituzuen zailtasun nagusiak?
- Zer izan da errazena?
- Zer ikasi dugu?
- Arazoei eta proposamenei dagokienez, zein elementu komun dute toki hauetan izaten ditugun arazoekin:
  - Etxean.
  - Bizilagunen komunitatean.
  - Herrian/auzoan.
  - Herrialdean.
  - Nazioartean?

## 3.1. Fitxa

### FITXA TEKNIKOA

**Zuzendaritza eta produkzioa:** Sergio Cabrera (Kolonbia, 1994)

**Gidoia:** Humberto Dorado, Sergio Cabreraren eta Ramón Jimenoren istorio bat oinarri hartuta.

**Argazkia:** Carlos Congote

**Musika:** Germán Arrieta

**Produkzio-diseinua:** Enrique Linero eta Luis Alfonso Triana

**Muntaketa:** Manuel Navia eta Nicholas Wentworth

**Banaketa:** Frank Ramírez (Romero), Fausto Cabrera (Don Jacinto), Sain Castro (Justo), Ernesto Malbran (Lázaro), Víctor Mallarino (Doctor Holgun), Luis Fernando Munera (Gustavo Calle), Humberto Dorado (Victor Honorio Mosquera), Florina Lemaire (Gabriel / Gabriela), Gustavo Angarita (Fray Luis), Vicky Hernández (Doña Eulalia), Edgardo Román (Juez Díaz).

**Iraupena:** 107 minutu

### Sinopsia

BOGOTA HIRIKO AUZO BEHARTSUNETAKO BATEKO BIZTANLEEK BEREN ETXEA BOTA EZ DEZATEN BORROKA EGIN BEHAR DUTE; LUR HORIEK ESKRUPULURIK GABEKO ABERATS BATENAK DIRA. ERAIKINAK EPAILEEN ETA POLIZIEN AURKA DEFENDITZEKO, ESTRATEGIA ORIGINAL BAT PRESTATU DUTE; ESTRATEGIA HORI DON JACINTO ESPAINIAR ANARKISTA ZAHARRAK PRESTATU ETA ZUZENDU DU. ESPEKULATZAILEEN ETA JENDE USTELAREN AURKAKO BORROKA GALDUTA DAGO, HASI AURRETIK, BAINA BIZILAGUNAK EDOZER GAUZA EGITEKO PREST DAUDE HAIEN DUINTASUNA DEFENDATZEKO.



## 3.2. Fitxa

### Bideoforumerako iradokizunak<sup>2</sup>

- Zure ustez, gaur egun jendeak filmean bezala egiten die aurre arazoei?
- Filmean defendatzen diren balioak aldarrikatzea garrantzitsua dela uste duzu?
- Zure ustez, elkartasunik ez izatea gaur egungo arazo larrienetako bat da?
- Zure ustez, eraikineko bizilagunek hartutako estrategia egokiena da egoera horretan?
- Istorioko protagonistek etxeak botatzearen aurka egiteko, beste estrategia baketsu eta solidariorik bururatzeko zaizu?
- Zer jarrera dute protagonistek istorioan, gatazkarekiko ikuspegiaren bilakaera eta desberdintasuna kontuan hartuta?
- Don Jacintok prestatutako estrategia ezin da gauzatu eta filmean argi esaten da ez dela eraginkorra. Zer zentzu du istorioak, gauzatzeko eredu praktiko eta eraginkor gisa balio ez badu? Eguneroko bizitzan, zer alderdi konpon daitezke antzeko jarrera eta jarduerak onartuta?
- Filmean hasieratik amaiera arte gertatzen denaren balantzea eginda, zein da ondorioa? Zerbait aldatu da? Zer uste duzu azaldu nahi duela Sergio Cabrerak istorio honekin? Istorioren amaiera optimista dela uste al duzu? Zergatik?
- Zer ondorio atera daiteke zure inguruko (familia, gela, eskola, auzoa/herria, mundua) jarduera komun eta pertsonaletatik?

<sup>2</sup> Honako honetatik egokitua: [www.pangea.org/edualter/material/pau/estrategiae.htm#guia](http://www.pangea.org/edualter/material/pau/estrategiae.htm#guia)